



Kodea:
2026AAH20013

Andoaingo Udala

Alkatetzaren ebazpena

Ikusirik Andoaingo Udalak bere kirol eskaintza desgaitasuna duten herritarrei zabaltzea nahi diela eta era berean herritar orori kirol egokitua ikustaraztea.

Ikusirik helburu hori betetzeko Udalak ez dituela baliabide tekniko nahikoak Gipuzkoako Kirol Egokituaren federazioarekin lankidetzan egitea erabaki du.

Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa 2026 urtean Andoainen desgaitasunari emango dio arreta kirolean ondorengo izango da:

- Eskola kirol egokitua: 6-21 urte bitarteko haur eta gazteentzat, aretoan eta igerilekuan kirol hastapena egiteko talde zehatzak antolatzea. (Aretoan Arrate frontoian astelehenetan, igerilekua ostegunetan).
 - Ur festa igerilekuan ekainaren 19an: begiraleak jarri desgaitasuna duten hurrekin egoteko.
 - Udaleku irekiak 2026: Uztailan goizez (09:30-13:30) desgaitasuna duten gaztetxoentzat aisialdi eskaintza kirol jarduerak eginez.
 - Sentsibilizazio saioa herriko 3 ikastetxeekin (LH 6 mailakoekin) Allurralde kiroldegian.
 - Mugitu Andoain ekimenaren baitan, futbol, eskubalo, saskibalo eta palako topaketak antolatu herriko elkarteekin batera.
 - Aholkularitza zerbitzua kiroldegiko eskaintzaren barruan eta herriko kirol elkarteetan (eskubaloia).
- Formakuntza kiroldegiko begiraleei (igeriketa taldeetarako).

Ikusirik Jarduera Fisikoa eta Kirola lansaileko Teknikariak 2026ko maiatzaren 15ean egindako txostena.

Ikusirik Udal Kontuhartzaileak 2026k ekainaren 4an egindako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bidez, honakoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa: Onartzea, Andoaingo Udala eta Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren artean proposatutako lankidetzak hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: Andoaingo desgaitasunari kirolean arreta ematea.

Dirulaguntza: 12.000 euro.

Partida: 1.1000.481.342.00.07.2026

Indarraldia: 2026 urtea

Bigarrena: Alkateari hitzarmena hau sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena: Hitzarmena sinatu ondoren, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioari diru laguntzaren %60a ordaintzea, hau da, 7.200 euro.

Laugarrena: Hartutako erabakia Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioari jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkateak sinatuta.

Bostgarrena: Akordio honen berri ematea Kontuhartzailera udal sailari.

Idazkaria

Alkatea

